

Artezkaritza kontseiluaren bilera-data

Datorren asteartean, otsailak 25, Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Guraso bilerak antolatzekeo prozesua

Gela-ordezkariek helarazitako eskaerari erantzunez, guraso-bilerak antolatzekeo prozesua bateratzea eta erraztea erabaki dugu. Hori dela eta, hemendik aurrera Google Calendar aplikazioa erabiliko dugu hitzorduak kudeatzeko.



Prozedura honako hau izango da:

- Hitzordua hartzea: Tutoreek mezu bat bidaliko dizute esteka (*link*) batekin. Bertan klik eginda, saio erabilgarriak ikusiko dituzue eta zuen beharretara hobe egokitzen den ordua hautatu ahal izango duzue (mesedez, zehaztu ikaslearen izen-abizenak). Hitzordua hartzen duzuen gailuaren ezarpenetan ordua Madril-ekoa dagoela zehaztuta begiratu, bestela ordu aukeraketan akatsak sortu daitezke.
- Segurtasuna eta konfidentziasuna: Ordu tarte bat hautatutakoan, aukera hori automatikoki desagertuko da zerrendatik. Sistema honek erabateko konfidentziasuna bermatzen du: gainerako familiek ezingo dute ikusi nork hartu duen ordu bakoitza.
- Gogorazarpena: Bilera data hurbildu ahala, sistemak mezu bat bidaliko dizue automatikoki, hitzordua gogorazteko.

Edozein zalantza izanez gero, jar zaitezte tutorearekin harremanetan.

Jangela batzordea

Datorren astelehenean, otsailak 23, arratsaldeko 15:30etan Udarregi ikastolako eraikin gorrian jangela batzordeko bilera egingo dela jakinarazten da. Gogorazten dizuegu bilera irekia dela eta gurasoen parte hartzea oso garrantzitsua dela.



Errigoraren kanpaina berria ate joka

Atzo hasi eta **martxoaren 18ra** bitarte izango da Errigoraren "Eskutik eskura egiten dugu herria" kanpaina. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztako produktuak eskuratzearen truke, irabazien laurdena zonalde hartako euskaletzara bideratuko da beste behin. Aurtengo 24. Korrikak Errigora egitasmoa omendu nahi du. "Hiru ardatz nagusi ditu Errigorak: euskara, auzolana eta elikadura-burujabetza.


Oraingo honetan, oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorriko prezioan erosi ahalko dituzue. Eskabideak ohi bezala, NOAUA! Kultur Elkartean nahiz errigora.eus bidez egin ahalko dituzue. [Informazio gehiago...](#)



Tanta txartelaren banaketa

Aurtengo Kilometroak jaia Lazkaoko ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)

Bestalde, jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari **GAUR** banatuko diogula **Tanta** txartel bat. Kobrantza (5€) errezibo bidez egin da otsailaren 16an.



Udako udalekuak

Aurten ere, Zirimolak -Ikastolen Aisialdi Taldea- 2026ko **udako kanpainaren aurkezpena** egin du. [Informazio gehiago...](#)



Xake festa

Gaur, XAKE FESTA Sutegi Udal Liburutegian, Breogan Estevezen eskutik. Erne, aurtengoan Xakean jokatzeko ezagutzaren arabera antolatu ditugu taldeak! **17:00etan, HASTAPENA** edo Xakean jokatzeko ikasteko zertzeladak, eta **19:00etan, XAKE JOKOA**, Xakean jokatzeko dakitenentzat. Info+ eta Izen ematea: Sutegi Liburutegian.



HAUR HEZKUNTZA

1-2 urteko eta talde mistoko gurasoentzat bilera deialdia

Martxoaren 4an, asteazkea, arratsaldeko **17:00etan** 1-2ko eta talde mistoko gurasoei zuzendutako bilera egingo da haurren gelan.

Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



Zorriak

2 urteko eta HH4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 1eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-ne neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LH 2ko irteeraren kobrantza

Datorren astelehenean, otsailak 23, LH 2. mailako ikasleek Eureka Zientzia museora egindako irteeraren kostua kobratuko da, **13,35 €** (autobusa 5,85 € eta sarrera 7,50 €).



LH 5eko ikasleen irteera

Datorren astean gure inguruko altxor natural bat bisitatzeko aukera izango dugu. Pagoetako Parke Naturalera joango gara txangoan, bertako ekosistema hurbiletik ezagutzeko eta naturaz gozatuz ikasteko.

Hona hemen irteeraren xehetasunak:

- Eguna: Otsailaren 27a, ostirala.
- Helburua: Pagoetako fauna, flora eta ingurunearen oreka bertatik bertara aztertzea.

Zer eraman behar da?

- Jantziak: Mendian ibiltzeko oinetako egokiak eta arropa eroso (eguraldiaren arabera).
- Lana egiteko: Koaderno eta arkatza (behaketak idazteko).
- Jan-edanak: Hamaiketakoa, bazkaria eta ura.



BIGARREN HEZKUNTZA

Kromoak

Azken egunotan berriro ere futboleko kromoen zaletasuna piztu dela sumatu dugu gure ikasleen artean. Hori horrela, futboleko kromoak hasi dira ekartzen ikastolara. Tamalez, ikusi dugu zaletasun horrek gatazka eta desadostasunak sortzen dituela haien artean (trukeak direla eta, galerak, etab.)



Ikastolan elkarbizitza giroa lehenetsi nahi dugu. Hori dela eta, **kromoak etxean uztea** eskatzen dizuegu. Jolaserako aukera kolektiboetan sinesten dugu eta kromoen pertenezia sentipenak horretan eragin negatibo zuzena du.

DBH 4ko familiei zuzenduta

Zuen seme-alaben etorkizun akademiko eta profesionala hurbil dagoela eta, orientazio prozesuan laguntzeko saio berezi bat antolatu dugu ikastolan.

Ikaslaneko (Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen sarea) ordezkariak etorriko dira guregana Lanbide Heziketak gaur egun eskaintzen dituen aukera zabalen inguruko xehetasunak ematera. Seme-alabek hartu beharreko bideak hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango da.

Hona hemen saioaren xehetasunak:

- **Eguna:** Otsailak 25, asteazkena.
- **Ordua:** 17:00etatik 18:30era.
- **Lekua:** Udarregi Ikastolako aretoan.

Gure seme-alaben hautuetan bidelagun izatea garrantzitsua denez, zuen parte-hartzea eskertuko genuke.



Konpetentzia astea

Otsailaren 26tik martxoaren 4ra konpetentzia astea izango da DBHko ikasleentzat.



DBH1 eta 2-koek frogak ostiralean hasiko dituzte. Ostegunean hasiko da ordea ordutegi berezia eta zaintza orduak izango dituzte frogak eta aurkezpenak prestatzeko ostegunean.